



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko martxoaren 17a

39. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Erronkaribarko Mankomunitateari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak  
egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Erronkaribarko Mankomunitateari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 3an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio-txostena, Erronkaribarko Mankomunitateari buruzkoa, 2012ko ekitaldia, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Erronkaribarko Mankomunitateari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- |  |   |
|--|---|
| <p><b>I.</b> Sarrera (3. or.).</p> <p><b>II.</b> Erakundearen deskribapena eta aplikatzekoa den araudia (3. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.1. Datu orokorrak (3. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.2. Aplikatzekoa den araudia (4. or.).</p> <p><b>III.</b> Helburuak eta norainokoa. (5. or.).</p> | <p><b>IV.</b> Iritzia (5. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Erronkari Ibaxaren Batzordearen 2012ko kontua (5. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Legezketasuna (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3. 2012ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoera (6. or.).</p> <p><b>V.</b> 2012ko kontu orokorraren egoera-orriak (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria. (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. Aurrekontu-emitza (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2012ko abenduaren 31n (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.4. Egoera-balantzea 2012ko abenduaren 31n (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.5. Emitza ekonomikoa 2012ko abenduaren 31n (11. or.).</p> <p><b>VI.</b> Erronkari Ibaxaren Batzordeari buruzko ondorioak eta gomendioak (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. Alderdi orokorrak (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2. Langile gastuak (13. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.4. Inbertsioak (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (15. or.).</p> |
|--|---|

## I. SARRERA

2013ko ekainaren 20an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarraren eskari bat erregistratu zen Kontuen Ganberan, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldearen ekimenez, Erronkaribarko Mankomunitatearen azken bost urteetako kudeaketa ekonomiko-finantzarioari eta kontuei buruzko fiskalizazioa egin zedin. Mankomunitate horren gobernu-organo gorena Erronkari Ibxaren Batzordea da, eta bera da mankomunitate horren ondasun guztien ordezkaria eta administratzailea.

Eskari hori betetzeko, aurreko lan hori Ganbera honen 2013rako lan-programan sartu zen. Eskarian jasotako denbora-esparrua azken bost urteei badagokie ere, gure lanaren ardatza 2012ko ekitaldiaren azterketa izan da, eta, horretaz gainera, 2008ko ekitalditik aurrerako finantza-egoeraren bilakaera aztertu dugu.

Azterketa-lana 2013ko azaroan eta 2014ko urtarrilean egin da.

Horri dagokionez, gogorarazi beharra dago 1998ko urrian, Kontuen Ganberak Batzar horren eta hura osatzen duten udalen fiskalizazio-txosten bat egin zuela, 1997ko ekitaldiari buruzkoa. Nagusiki, honakoa eman zen agertzerara:

- Urteko kontuei eta ondarearen egoerari buruzko iritzirik ez zen eman.
- Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia eman genuen, salbuespen batzuekin.
- Finantza-egoerari buruzko aldeko iritzia.

Halaber, 1998ko abenduan, beste txosten bat egin genuen, non azterketa bat egiten genuen Erronkari Ibarreko tokiko zerbitzu publikoak emateko gastuaren arrazoikotasun ekonomikoari buruz. Txosten horretan proposatzen genuen, funtsean, entitate bakarrean zentralizatzea (Batzordea) udalek ematen dituzten zerbitzu publikoak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, fiskalizazioaren xede den entitatearen deskribapen bat egiten da, eta hari aplikatzekoa den araudia aipatzen da; hirugarren atalean, egindako lanaren helburuak eta norainokoa azaltzen ditugu. Laugarrenean, kontu orokorraren aldeko iritzia ematen dugu; haren laburpenak bosgarren atalean ageri dira. Seigarrenean, Batzarraren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira.

Eskerrak ematen dizkiegu Erronkari Ibxaren Batzordeko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. ERAKUNDEAREN DESKRIBAPENA ETA APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

### II.1. DATU OROKORRAK

Erronkari Ibarra Nafarroako ipar-ekialdean dago, Iruñetik 90 bat kilometrora. Honako herriek osatzen dute: Uztarroze, Izaba, Urzainki, Erronkari, Garde, Bidankoze eta Burgi. 414 km<sup>2</sup> ditu eta 1.518 biztanle zeuzkan 2012ko urtarrilaren 1ean.

Aipatutako herri horiek Erronkaribarko Mankomunitatea osatzen dute. Mankomunitatea Batzordeak kudeatzen eta ordezkutzen du, eta Erronkari herrian du egoitza.

Mankomunitate hori, zeina Errege Bardeako gozamen-kidea baita, izaera tradizionalako batasun bat da, zeinaren jatorria XIV. mendean baitago. Honakoak ditu eginkizun nagusi:

- Ibarreko baliabideak kudeatzea eta administratzea. Bereziki garrantzitsua da ondasun komunak –larreak eta zuhaitza, batez ere– kudeaketa.
- Eskualdearen garapen ekonomikoa eta turismoa sustatzea.

Batzarrak tributu-ahalmena du, ematen dituen zerbitzuengatik eta egiten dituen obregatik tasak eta kontribuzio bereziak ezartzei dagokionez.

Entitate honek 1988an bere gain hartu zuen Ixabako Oinarrizko Osasun Eskualdeko gizarte zerbitzua. Hartan sartzen dira, izan ere, etxez etxeko laguntza zerbitzua eta, 2004tik, Erronkariko zero eta hiru urte bitarteko haur hezkuntzako ikastetxea.

Honako hauek dira 2011ko abenduaren 31ko kopuru ekonomiko aipagarrienak:

Kontzeptua	Zenbatekoa (eurotan)		Langileak, 2012-12-31n
	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	
Erronkari Ibxaren Batzordea	674.130	699.889	18

2012ko abendutik bertan lan egiten duten 18 pertsonek gisa askotako lanak egiten dituzte –VI.2 atalean zehaztuta datoz–; honakoak, besteak beste: idazkaritza, gizarte lana, euskara, administrazio lanak eta abar. Zehaztu beharra dago ezen aurreko pertsonetatik bik bakarrik lan egiten dutela lanaldi osoan; gainerakoak beste toki entitate batzuekin partekatutako langileak dira, edo lanaldi murriztua dute.

## II.2. APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

2012an zehar, Batzarrak bete beharreko oinarrizko araudia nagusiki honako lege eta erregelamendu hauek osatzen dute:

6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.

2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.

Nafarroako Toki Administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitate instrukzio orokorra onesteari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 273 foru dekretuak, hurrenez hurren.

Aurrekontu-betetzearen egoera-orria

Ixabako Batzordearen estatutuak.

Tasak eta prezio publikoak ezartzeko akordioak eta ordenantzak.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak, 6/1990 Foru Legea toki-kontratazioari dagozkionetan aldatzen duenak, ezarritako berezitasunekin.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.

Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.

Lurralde antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea.

38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa.

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa.

20/2012 Errege Lege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.

### III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA.

Parlamentuaren eskaria betez eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Erronkari Iboxaren Batzordearen 2012ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren xedea da gure iritzia ematea hurrengo gaiei buruz:

a) Erronkari Iboxaren Batzordearen 2012ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdirik behinenetan, entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lortutako emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Erronkari Iboxaren Batzordeak 2012an aurrera eraman duen finantza-jardueran legezketasuna bete den.

c) Erronkari Iboxaren Batzordearen egoera finantzarioa 2012ko abenduaren 31n.

Fiskalizazioaren norainokoa honakoa izan da:

- Erronkari Iboxaren Batzordearen kontu orokorrak finantzen honako egoera-orri aipagarriak dauzka: aurrekontuaren betetzeari buruzko egoera-orria, aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

### IV. IRITZIA

Ondoren, Erronkari Iboxaren Batzordearen 2012ko ekitaldi buruzko gure iritzia ematen dugu, arauzkotasunari dagokionez, betiere lanaren norainokoaren arabera.

#### IV.1. ERRONKARI IBAXAREN BATZORDEAREN 2012ko KONTUA

Ez dago ondasunen inbentariarik, ibilgetuaren kontabilitate-balioei euskarria ematen dionik. Ibilgetuak, 2012an, 6.352.903 euroko balioa du, eta gainera ez da amortizatu.

Balantzeko kontu batzuen saldoak (ibilgetua, finantza-kontuak, epe luzeko hartzekodunak eta ondarea) ez dira gaurkotzen aurrekontu-kontabilitatean erregistratutako eragiketekin, zeren eta horretarako esteka egokirik ez baitago programa informatikoan. Horrek, izan ere, berarekin dakar aktiboa eta pasiboa 49.680 eta 74.750 euro beheratuta egotea, hurrenez hurren.

Ez da kontuan hartu 26.774 euroko finantzaketa-desbideratze bat, zeinak berarekin ekarriko bailuke aurrekontu-emaitza doitua eta diruzaintza-gerakina kopuru horren arabera handitzea.

Arestian aipatutako salbuespenen ondorioak alde batera utzita, Batzordearen 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko beharrezko informazioa biltzen du,

aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

## IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke Erronkariko Iboxako Batzordearen jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezketasun-printzipioa errespetatuz egiten dela.

## IV.3. 2012ko ABENDUAREN 31ko EKONOMIA- ETA FINANTZA-EGOERA

Erronkari Iboxaren Batzordeak 714.544 euroko hasierako aurreikuspen batzuk badauzka, zeinek ehuneko zortzi igo egin behar baitziren inbertsioengatik eta inbertsio horien finantzaketarengatik; 769.710 euroko kopurura iritsi zen, beraz.

Aitortutako betebeharrak 674.130 eurokoak dira; ehuneko 91ko betetze-maila eta ehuneko 95eko ordainketa-portzentajea izan dute. Diru-sarreraren kasuan, aitortutako eskubideak 699.889 eurokoak izan dira, eta ehuneko 91ko eta 74ko egite- eta kobratze-ehunekoak izan dituzte, hurrenez hurren.

Batzarraren zorpetze-maila ehuneko 4,8koa izan da, eta zorpetze-muga, berriz, ehuneko 16,8koa; horrenbestez, Batzordeak zorpetzeko ahalmena du.

Aurrekontu-emaizta doituia, aurreko idatz-zatian<sup>1</sup> aipatutako salbuespenak sartu gabe, 76.004 eurokoa da. Kopuru hori ehuneko 67 jaitsi da aurreko urtekoarekin alderatuta.

Diruzaintza-gerakina, aurretiko salbuespenak kontuan izan gabe<sup>2</sup>, 267.185 eurokoa da. Ehuneko 10 jaitsi da 2011koaren aldean; ez dago finantzaketa atxikia duen gasturik.

Hurrengo taulan erakusten dugu nolako bilakaera izan duten Iboxako Batzordearen aurrekontu-likidazioan lortutako adierazle nagusiek 2008tik 2012ra doan aldian, kontuan izanda Ganbera honek ez duela egin 2012a baino lehenagoko urteei buruzko auditoriarik.

Adierazlea	2008	2009	2010	2011	2012	2012-2011 aldea (%)	2012-2008 aldea (%)
Diru-sarrerak, guztira	745.051	973.385	687.591	904.844	699.889	-23	-6
Gastuak, guztira	649.748	732.918	662.837	694.073	674.130	-3	4
Diru-sarrera arruntak	714.224	698.399	642.363	891.744	699.889	-22	-2
Gastu arruntak	541.368	534.611	535.593	623.984	585.948	-6	8
Tributu bidezko diru-sarrerak	34.512	34.054	37.185	46.070	51.597	12	50
Funtzionamendu gastuak	527.491	526.690	530.991	620.096	582.533	-6	10
Inbertsio garbia	-24.006	14.834	127.228	39.574	57.684	46	-340
Transferentzia arruntekiko mendekotasuna, ehunekotan	65	77	85	68	80	17	23
Aurrezki gordina	186.733	171.725	111.372	271.648	117.357	-57	-37
Finantza-karga	115.452	191.394	4.618	34.389	33.912	-1	-71
Aurrezki garbia	71.281	-19.685	106.755	237.260	83.444	-65	17
Aurrekontu-emaizta	95.303	240.467	24.755	210.773	25.759	-88	-73
Aurrekontu-emaizta doituia	95.303	258.556	107.596	226.932	76.044	-66	-20
Zor bizia	183.472	152.489	152.487	121.985	91.490	-25	-50
Zor bizia/diru-sarrera arruntak ehunekotan	26	22	24	14	13	-7	-50
Zorpetze-maila (%)	16,16	27,41	0,72	3,86	4,85	26	-70
Zorpetze-ahalmena (%)	9,98	-2,82	16,62	26,61	11,92	-55	19
Zorpetze-muga, ehunekotan	26,15	24,59	17,34	30,46	16,77	-45	-36
Gastu orokorretako diruzaintza-gerakina	119.372	270.770	126.647	296.117	267.185	-10	124

<sup>1</sup> Sartzen badira aurrekontu-emaizta doituia 102.818 eurokoa izanen litzateke.

<sup>2</sup> Kontuan hartzen badira, diruzaintza-gerakina 293.959 eurokoa izanen litzateke.

Arestiko datu horiek kontuan hartuz, ondoko alderdiak azpimarratu nahi ditugu:

- Guztizko diru-sarrerek ehuneko sei eta 23 bitarte egin dute behera 2008koekin eta 2011koekin alderatuta. 2012ko beherakadaren arrazoi nagusia, 2011ko datuekin alderatuz gero, oihan loteen esleipenean izandako jaitsiera izan da.

- Ez da zuzeneko nahiz zeharkako zergaren likidaziorik egin Tasa eta prezio publikoetatik lortutako diru-sarrerek ehuneko 50 eta 12 egin dute gora 2008koekin eta 2011koekin alderatuta.

- Guztizko gastuek ehuneko lau egin dute gora aztertutako aldi osoan, baina ehuneko hiru egin dute behera 2011ko datuekin alderatuta. Hori gorabehera, funtzionamendu-gastuek ehuneko 10 egin zuten gora aztertutako epe osoan, nahiz eta 2011koekin alderatuta ehuneko sei behera egin.

- Aurrekontu-emaitzak nabarmen behera egiten du aztertutako aldi osoan, nahiz eta positiboa izaten jarraitzen duen, eta oihan loteen esleipenak eragindako diru-sarrerei lotuta dago.

- Transferentzia arrunten menpekotasunak balio nabarmen handiak erakusten ditu aztertutako aldi osoan. 2012an iristen da kopuru altuenera, ehuneko 80ra hain zuzen.

- Zor biziak beheranzko joera izan du aztertutako aldian. 2012an, 91.490 euroko kopurura iristen da, ehuneko 50eko eta 25eko jaitsierarekin, 2008ko eta 2011ko datuekin alderatuta.

- Zorpetze-mailak eta ahalmenak hobera egin du aztertutako aldi osoan.

Laburbilduz, ikusten da Batzarrak egoera saneatua duela, eta bere zerbitzuak betetzeko jasotzen dituen transferentzia arrunten menpekotasun handia duela. Hori dela eta, gastu arruntei eusteko gomendatzen dugu, saiheste aldera jasotako transferentzien desagertzeak edo mozteak eragina izan dezan zerbitzuak ematerakoan.

Aztertu da aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioen betetzea, toki korporazioei egokitutako kontabilitate nazionalaren defizita kalkulatzeko eskuliburua, Estatuko Administrazioen Kontu-hartzailatza Nagusiak egindakoa, aplikatuz.

Emaitza, kontabilitate nazionalak adierazitako doikuntzak egin gabe, honakoa da:

	(eurotan)
Adierazlea	Zenbatekoa
Finantzaz besteko diru-sarrerak	699.889
Finantzaz besteko gastuak	640.217
Aurrekontu-saldo ez finantzarioa (finantzatzeko ahalmena)	59.672

Ikus daitekeen bezala, 59.672 euroko superabit ez-finantzarioa lortzen da, baina, aipatu den bezala, kasuko doikuntzak egitea faltako litzateke. Bestalde, aipatu beharra dago zor biziak diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoan legez ezarritako gehienekoaren (ehuneko 110) azpiko balioak ageri direla

**V. 2012ko KONTU OROKORRAREN EGOERA-ORRIAK****V.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA.****Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainutakoa (%)	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile gastuak	507.967	0	507.967	467.357	92	458.009	98	9.348
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	80.300	0	80.300	70.837	88	68.370	97	2.467
3. Gastu finantzarioak	4.407	0	4.407	3.416	78	3.416	100	0
4. Transferentzia arruntak	51.423	15	51.438	44.338	86	29.524	67	14.814
5. Inbertsio errealak	39.950	55.151	95.101	57.685	61	52.676	91	5.009
6. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	-	0	-	0
7. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	-	0	-	0
8. Finantza-pasiboak	30.497	0	30.497	30.497	100	30.497	100	0
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>714.544</b>	<b>55.166</b>	<b>769.710</b>	<b>674.130</b>	<b>88</b>	<b>642.492</b>	<b>95</b>	<b>31.638</b>

**Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera**

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Kobratutakoa	Kobrantzak (%)	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	0	0	0	0	-	0	-	0
2. Zeharkako zergak	0	0	0	0	-	0	-	0
3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	46.587	0	46.587	51.601	111	48.318	94	3.283
4. Transferentzia arruntak	565.631	0	565.631	558.756	99	464.592	83	94.164
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	102.326	0	102.326	89.532	88	7.817	9	81.715
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0	-	0	-	0
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	-	0	-	0
8. Finantza-aktiboak	0	55.166	55.166	0	0	0	-	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	-	0	-	0
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>714.544</b>	<b>55.166</b>	<b>769.710</b>	<b>699.889</b>	<b>91</b>	<b>520.727</b>	<b>74</b>	<b>179.162</b>



## V.2. AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2011	2012
Aitortutako eskubideak	904.840	699.889
Aitortutako betebeharrak	-694.067	-674.130
Aurrekontu-emaiza	210.773	25.759
Finantzaketaren desbideratze positiboak	0	0
Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboa	0	0
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	16.159	50.285
<b>Aurrekontu-emaiza doitua</b>	<b>226.932</b>	<b>76.044</b>

## V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2012ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2011	2012
+ Kobratzeko dauden eskubideak	309.379	233.465
Behin betiko aurrekontua Diru-sarrerak: egungo ekitaldia	295.167	179.162
Behin betiko aurrekontua Diru-sarrerak: itxitako ekitaldiak	105.901	200.996
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	6.756	6.756
(Diru-bilketa zaileko eskubideak)	-98.445	-153.448
Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	0	0
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	145.863	148.561
Behin betiko aurrekontua Gastuak: egungo ekitaldia	90.338	31.639
Behin betiko aurrekontua Gastuak: itxitako ekitaldiak	2.250	65.595
Diru-sarreraren itzulketak	0	0
(Aplikatzeko dauden gastuak)	0	0
Aurrekontuz kanpoko gastuak	53.276	51.327
+ Diruzaintzako funts likidoak	132.601	182.281
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
= Diruzaintza-gerakina, guztira	296.117	267.185
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	0	0
Baliabide atxikiaren ondoriozko diruzaintza-gerakina	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	296.117	267.185

## V.4. EGOERA-BALANTZEA 2012ko ABENDUAREN 31n

## Aktiboa

Azalpena	2011	2012
Ez-arrunta	6.352.903	6.352.903
Ibilgetu materiala	1.300.038	1.300.038
Ibilgetu ukiezina	3.485	3.485
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetako inbertsioak	462.375	462.375
Herri ondasunetan eginiko inbertsioak	4.587.004	4.587.004
Ibilgetu finantzarioa	0	0
Arrunta	540.425	519.515
Zordunak	407.824	386.914
Finantza-kontuak	132.601	132.601
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>6.893.328</b>	<b>6.872.418</b>

## Pasiboa

Azalpena	2011	2012
Norberaren fondoak	6.353.320	6.360.209
Ondare eta erreserbak	6.353.320	6.360.209
Diru-laguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak	0	0
Epe luzeko hartzekodunak	394.144	363.647
Prestamenak	0	0
Jasotako maileguak	0	0
Hartutako fidantzak eta gordailuak	394.144	363.647
Epe laburreko hartzekodunak	145.863	148.561
Epe laburreko zorrak	145.863	148.561
Aplikatzeko dauden kontusailak	0	0
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>6.893.328</b>	<b>6.872.418</b>

## V.5. EMAITZA EKONOMIKOA 2012ko ABENDUAREN 31n

## Ekitaldiko emaitza arruntak

ZOR			HARTZEKO		
Azalpena	2011ko zenbatekoa	2012ko zenbatekoa	Azalpena	2011ko zenbatekoa	2012ko zenbatekoa
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako izakinak	0	0
39 Izakinen balio-galeragatiko hornidurak	0	0	39 Izakinen balio-galeragatiko hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	46.075	51.601
61 Langileria-gastuak	461.779	467.357	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	238.762	89.532
62 Gastu finantzarioak	3.897	3.416	72 Produksioari eta inportazioari lotutako tributuak	0	0
63 Zergak	0	0	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	0	0
64 Lanak, hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	76.625	70.837	75 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0
65 Gizarte-prestazioak	0	0	76 Transferentzia arruntak	606.903	558.755
66 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	0	0
67 Transferentzia arruntak	81.690	44.338	78 Bestelako diru-sarrerak	0	0
68 Kapital transferentziak	0	0	79 Daukaten helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
69 Amortizazio eta horniduretarako hornidura, ekitaldikoa	0	0	79 Daukaten helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	267.749	113.940	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
<b>Guztira</b>	<b>891.740</b>	<b>699.888</b>	<b>Guztira</b>	<b>891.740</b>	<b>699.888</b>

## Ekitaldiko emaitzak

ZOR			HARTZEKO		
Azalpena	2011ko zenbatekoa	2012ko zenbatekoa	Azalpena	2011ko zenbatekoa	2012ko zenbatekoa
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	267.749	113.940
82 Ekitaldiko aparteko emaitzak (saldo zorduna)	0	0	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balio-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	0	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	267.749	113.940	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
<b>Guztira</b>	<b>267.749</b>	<b>113.940</b>	<b>Guztira</b>	<b>267.749</b>	<b>113.940</b>

## VI. ERRONKARI IBAXAREN BATZORDEARI BURUZKO ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, Ganbera honen iritziz kudeaketaren arlo aipagarri bakoitzean Batzarrak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko ondorio nagusiak eta aholkuak emanen ditugu.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

Batzarraren aurrekontua behin betiko onetsi zen, eta 2012ko martxoaren 8ko NAO n argitaratu zen.

Kontuen Komisioak Erronkari Iboxaren Batzordearen 2012ko kontu orokorraren aldeko txostena eman zuen. Kontu orokor hori 2013ko abuztuaren 24an onetsi zen

Ez dago ondasunen inbentariarik, ibilgetuaren kontabilitate balioei eusten dionik. Ibilgetua 6.352.903 eurokoa da 2012ko abenduaren 31n, eta ez da ez amortizatzen, ez gaurkotzen ekitaldi bakoitzean izaten diren alta- edo baja-mugimenduengatik, zeren eta aurrekontu-kontabilitatearen eta finantza-kontabilitatearen arteko esteka informatikorik ez baitago eragiketa horiek egiteko. 2012an, mugimendu horiek 57.685 euroan handitu behar zuten ibilgetua.

Halaber, balantzeko zenbait konturen saldoak ez dira gaurkotzen aurrekontu-kontabilitatean erregistratutako eragiketekin, aipatutako gabezia informatikoa dela eta. Hartara, ikusten da diruzaintzako saldoak (finantza-kontuak) eta ondareak 49.680 euro eta 197.365 euro egin dutela behera, hurrenez hurren. Halaber, epe luze hartzekodunen saldoak, 2011ko eta 2012ko abenduaren 31koak, 272.115 euro jasotzen ditu, inongo zorri ez dagozkionak. Hori dela eta, pasiboa kopuru horretan handituta dago eta, horrenbestez, pasiboa kopuru berean gutxituta.

Antzeman da BEZaren likidazioak direla-eta kobratu eta ordaindu beharreko saldoak 3.851 eurokoak eta 450 eurokoak direla, hurrenez hurren. Ez dagozkio, ordea, kobratzeko inongo eskubideri edo ordaintzeko inongo betebehari.

Hona gure gomendioak:

- *Aurrekontuak eta kontu orokorra legedi indardunean ezarritako epean egitea.*
- *Inbentario bat egitea, behar adina informazio bilduta, ibilgetuaren kontusailak balantzean zuzen kontabilizatzeko.*
- *Aurrekontu-kontabilitatearen eta finantza-kontabilitatearen arteko esteka informatikoa egitea erregistratzen diren eragiketa guztietan, errealitateari egokitutako kontabilitate-informazioa emateko.*
- *Aurrekontuz kanpoko saldo hartzekodunen eta zordunen kontuak erregularizatzea eta eustea bakarrik egungo datan indarrean jarraitzen dutenei.*
- *Kontabilitate-eragiketen tratamendua eta erregistroa hobetzea, bereziki finantza-kontabilitatean eragina dutenen kasuan.*

## VI.2. LANGILE GASTUAK

Langileei dagozkien gastuek 467.357 euro egin zuten, aurreikusitako aurrekontu-kredituen ehuneko 92, alegia. 2012ko ekitaldian sorrarazitako gastuen guztizkoaren ehuneko 69 egiten dute.

Honakoak dira eurotan duten xehakapena eta 2011koekiko alderaketa:

	2011	2012	2012-2011 aldea (%)
10. Goi karguak	4.704	6.817	45
12 Langile funtzionarioak	39.370	37.643	-4
13. Langile kontratudunak	246.240	258.852	5
14 Hainbat lansari	65.174	60.501	-7
16. Gizarte aseguruak, montepioko kuotak eta familia laguntza	106.291	103.544	-3
<b>Guztira</b>	<b>461.779</b>	<b>467.357</b>	<b>1</b>

Ikus daitekeen bezala, 2011koarekin alderatuta, gastuak oso gutxi egin du gora, ehuneko 1,21 hain zuzen.

Honakoak dira 2012rako onetsitako plantilla organikoaren oinarritzko datuak:

Lanpostua	Maila	Lanaldia
Funtzionarioak:		
– Idazkaria	B	% 100
– Gizarte langilea	B	% 100
Lan kontratudun finkoak		
– 4 familia-langile	D	% 50
Aldi baterako lan-kontratudunak:		
– Garapenerako agentea	A	Beste entitate batzuekin partekatua
– Animatzaile soziokulturala	C	% 50
– Euskara teknikaria	B	Beste entitate batzuekin partekatua
– Administrari laguntzailea	D	% 50
– 2 familia-langile	D	% 50
– 4 haur hezitzaile	C	% 50 eta % 75
– Garbiketako langilea	E	% 75
– Mendizaina	D	% 100

Batzordeko langile finkoek ez zuten 2012ko abenduko aparteko soldata jaso, 20/2012 Errege Lege-dekretua aplikatuta. Hala eta guztiz ere, aldi baterako langile batzuei soldata hori hainbanatuta ordaindu zitzairen uztailetik abendura bitarteko hileroko nominetan. Horri dagokionez, esan beharra dago behar zenaz gaineratik ordaindutako diru-kopurua, 7.718 euro, langile horien 2013ko urtarrileko nominatik deskontatu zela.

Zenbait aldaketa onetsi ziren Batzordeko langileen lanpostu-osagarrian, bai goranzko aldaketa batzuk ere 2012rako onetsitako plantillan sartu ez ziren langileen lanaldiko ehunekoetan. Gainera, aipagarriak ez diren beheazko akats batzuk aurkitu dira langile batzuen oinarritzko soldata kalkulaterakoan. Akats horiek 2013ko amaieran eta 2014ko hasieran zuzendu ziren, eta 2014ko plantilla organikoak zuzenduta dakar aipatutako informazio hori guztia.

Langileen kilometraje gastuak, zeinek guztira 22.288 euro egiten baitute, kapitulu honetan erregistratzen dira. Kilometro bakoitzeko 0,3 euro ordaintzen da.

Hona gure gomendioak:

- *Plantilla organikoan sartzea hura dela eta onesten den aldaketa oro, eta horren berri ematea nominak egiten dituen aholkularitza-enpresari, kasuko aldaketak ukitutako langileen nominan sar ditzan.*

- *Kilometrajeko gastua ondasun arrunten eta zerbitzuen 2. kapituluan erregistratzea.*

### VI.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuak 70.837 eurokoak izan ziren; kopuru hori aurreikusitako kredituaren ehuneko 88 da. 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 11 egiten dute, eta ehuneko 7,5 egiten dute behera 2011rekin alderatuta.

Honakoak dira gastu horiek osatzen dituzten kontzeptu nagusiak:

Kontzeptua	Gastua, 2011	Gastua, 2012	Aldea (%) 2012/2011
Euskara zerbitzuaren materiala eta jarduerak	17.586	10.255	-42
Juridikoak, auziak, txostenak. Legelari aholku-emailea	5.543	9.281	67
OFICO lan eta gizarte arloko aholkularitzako enpresa	5.479	6.786	24
Berokuntzarako gasolioaren hornikuntza	5.339	4.912	-8
Haur eskolarako jatorduen hornikuntza	0	4.659	--

Gastu horien gainean egindako azterketatik ondorioztatzen da egoki bete dela araudi indarduna eta gastuak zuzen kontabilizatu direla. Halere, kasuko gastu-betebeharra aitortzeko sortzen diren kontabilitate-dokumentuak sinatu gabe daude.

*Gomendatzen dugu kontabilitate-dokumentuak sinatzea, eta haietan behar den gastu-betebeharra aitortzea.*

### VI.4. INBERTSIOAK

2012ko inbertsioak 57.685 eurokoak izan dira. Gastu guztien ehuneko bederatzi dira. Honakoak izan dira Erronkari Ibaxaren Batzordeak 2012an egindako inbertsioak:

Inbertsioa	Kontratazio prozedura	(eurotan) 2012ko gastua
0-3 urteko zentrarako obrak	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	42.037
0-3 urteko zentrarako obraren zuzendaritza	Esleipen zuzena	4.170
Oihanetan egindako hobekuntzak	Esleipen zuzena	7.413
Seinaleztapen panelak	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	4.065

2012an esleitu zen obren kontratazio-espeditente bakarra aztertu dugu. Ibaxaren etxeko beheko solairuan 0-3 urteko haur hezkuntzako zentroa egiteko obrari dagokiona da. Lan horien izapidetzea, esleipena eta exekuzioa, oro har, kontratuei buruzko legediari dagokiona da, baina honakoa ohartarazi behar da:

- Ez dago jasota esleipen-hartzaileak kasuko fidantza aurkeztu zuenik.

- Baldintza-orrietan obra entregatzeko aitortutako epea hilabetekoa da, egiaztatze-zuinketa egiten den unetik aurrera. Zuinketa hori kontratuaren esleipenari buruzko jakinarazpena egiten zenetik, gehienez, astebeteko epean egin behar zen. Ez dago jasota zuinketaren eta obren hasieraren aktarik, ez eta esleipenaren jakinarazpenik ere. Hori dela eta, ezin da egiaztatu entrega-epeak bete diren.

- 2013ko apirilean, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza bat jaso zen, Cederna-Garalurren bidez. 26.774 euroko diru-laguntza da, obra finantzatzekoa, eta lehendik

ezagutzen zen. Diru-laguntza hori ez da kontuan hartu finantzaketa-desbideratzearen ondorioetarako, ez aurrekontu-emaiztan, ez eta diruzaintza-gerakinean ere.

Gainerako gastuei dagokienez, ikusten da ezen, orokorrean, egoki kontabilizatu direla.

Hona gure gomendioak:

- *Kontratazioaren arloko araudiak exijitzen duen dokumentazio guztia prestatzea, egiten diren kontratuen baldintzei buruzko jarraipen egokia egin ahal izateko.*

- *Exijitzea bermeak era daitezela, kontratazioari buruzko araudi indardunean ezarritakoaren arabera.*

- *Inbertsio errealekin lortutako diru-laguntzak, kasua bada, kontuan hartzea aurrekontu-emaiztan eta diruzaintza-gerakinean eragina duten finantzaketa-desbideratzeak kalkulatzeko.*

## VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2012ko diru-sarrerak 699.889 eurokoak izan ziren. Honakoak dira diru-sarrerak osatzen dituzten kapitulu nagusiak: ehuneko 80 transferentzia arruntetik; ehuneko 13 ondare bidezko diru-sarreretatik eta herri-lurren aprobetxamenduetatik; eta gainerakoa, ehuneko zazpi, tasa eta prezio publikoetatik.

### VI.5.1. Transferentzia arruntak

Diru-sarrera hauek 558.756 eurokoak izan ziren 2012an, eta ehuneko zortzi egin zuten behera 2011koekin alderatuta. Ondoren, jasotako transferentzia aipagarrienak eta aurreko urtekoekiko alderaketa ematen ditugu:

Kontzeptua	2011ko diru-sarrera	2012ko diru-sarrera	2012/2011 aldea (%)
Bardeako Komunitatea. Tiro poligonoaren kanona.	195.000	195.000	0
Nafarroako Gizarte Ongizate Departamentuaren diru-laguntza	173.077	156.764	-9
Nafarroako Ingurumen Departamentuaren diru-laguntza	69.007	70.802	3
Cederna-Garalurren diru-laguntza	72.409	--	--
Udalbideren diru-laguntza	12.000	--	--
Hezkuntza Departamentuaren diru-laguntza	46.520	52.000	12
Toki entitateentzako diru-laguntza, garapenerako agentea hartzeko	--	39.457	--

Ikusten den bezala, nahiz eta 2012an ia 40.000 euroko diru-laguntza bat zegoen garapenerako agentea hartzeko, kopuru handiagoko beste batzuk desagertu dira; esate baterako, Cederna-Garalurrena edo Udalbiderena, guztira 84.409 euro egiten dutenak.

Kontusail horiei buruz egindako azterketatik ondoriozta daiteke diru-sarrera guztiak zuzen kontabilizatuta daudela, arau indardunen arabera.

### VI.5.2 Ondarearen diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak

Kapitulu honetako 2012ko diru-sarrerak 89.532 eurokoak izan ziren, eta ehuneko 62 jaitsi ziren 2011koekin alderatuta. Horren arrazoia da oihan loteen esleipenaren bidezko diru-sarrerak (kapituluko diru-sarreraren ehuneko 97 egiten dutenak) ehuneko 63 jaitsi direla 2011koen aldean.

Kapitulu hau osatzen duten gainerako diru-sarrerak harrera-zentroko tabernaren errentamenduari dagozkio; kontratuaren arabera, urteko 3.600 eurokoak izan beharko liriteke. Hori gorabehera, kopuru horretatik deskontatu dira errentariak bere jarduera garatzeko egin dituen gastu batzuk (955 euro), zeinak Batzordeak hartu baititu bere gain; horrenbestez, 2.645 euroko diru-sarrera garbia erregistratu da.

*Gomendatzen dugu diru-sarrerak eta gastuak ez-konpentsatzeko printzipioa aplika dadila. Errentamenduarengatiko diru-sarrerak kontratuan adierazitakoaren arabera erregistratu behar dira, eta errentan emandako higiezinak dela-eta gertatzen diren gastuak, berriz, dagokien kapituluan.*

### **VI.5.3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak**

Kapitulu honetako diru-sarrerak 51.601 eurokoak dira, eta diru-sarrera guztien ehuneko zazpi egiten dute. 2011koekin alderatuta, ehuneko 12 egin dute gora. Igoera horren arrazoi nagusia da animazio soziokulturaleko programako kuotengatiko eta lursailak okupatzearen ondoriozko aprobetxamendu bereziengatiko diru-sarrera gehigarri batzuk badaudela.

Txosten hau auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas